



Agenda bete txapelketa

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa, Nafarroako Bertsolari Txapelketa eta Xilaba jokatu dira aurtengo udazkenean; sarrerak eskuragai daude dagoeneko www.bertsosarrerak.eus atarian.

Lanak izango dituzte bertsozaleek udazken honetan asteburuak libre hartzeko. Txapelketa batek agenda betetzen badu, hiruk sutan jartzen dute: Bizkaiko Bertsolari Txapelketa, Nafarroako Bertsolari Txapelketa eta XILABA jokatu dira aurten, urte amaiera orduko.

XILABA izan da hasten lehenengoa. Larunbatean hasi zen, Makeako Herriko Gelan eta beste zazpi saiorekin osatuko da txapelketa. Hurrengo kanporaketa Muskildin izanen da larunbatean eta, jarraian, Hiriburun eta Gabadin jokatu dira. Final aintzinekoak Maule-Lextarren, Bardozen eta Izpuran egingo dira; finala Donibane Lohizunen jokatu da, azaroaren 13an, Jai Alai ezker paretan.

Guztira 24 bertsolarik parte hartuko dute udazken honetan eta 18 pasatuko dira final aintzinekoetara; saio horietako hiru irabazleek eta puntuazior lehenengo hirurek kantatuko dute Donibane Lohizuneko finalean.

Urriaren 2an, Nafarroaren txanda

Izaban hasiko da Nafarroako Bertsolari Txapelketa urriaren 2an eta, guztira, lau final laurden, hiru finalurreko eta finala izango dira txapelketa osatuko duten saioak. Final laurdenak Izaban, Tafallan, Zangozan eta Donezteben jokatu dira; finalurrekoak Altsasun, Berriozarren eta Leitzan. Finala, berriz, Iruñeko Anaitasuna kiroldegian izango da, azaroaren 28an.

29 bertsolarik eman zuten izena Nafarroako Bertsolari Txapelketan eta ekainean jokaturako aurrekanporaketen ondotik 24 bertsolarik abiatuko dute udazkeneko bidea. Horietatik zortzik kantatuko dute Anaitasunako finalean.

Bizkaiko Txapelketa, urriaren 3tik aurrera

Nafarroakoa hasi eta biharamunean abiatuko da Bizkaiko Bertsolari Txapelketa, Durangon. Guztira sei

kanporaketa, hiru finalurreko eta finala jokatu dira aurtengoan. Durangoren ostean Igorren, Ortuellan, Mungian, Elorrioren eta Getxon egingo dituzte geldialdiak kanporaketek; finalurrekoak Etxebarrian, Galdakaon eta Larrabatzun jokatu dira. Azkenik, finala Bilboko Bilbao Arenan izango da abenduaren 18an, azken urteen antzera.

Bizkaian 44 bertsolarik kantatuko dute txapelketan. 36 hasiko dira kanporaketen fasean eta 2018ko zortzi finalistak batuko zaizkie horiei, finalurrekoetan.

Pandemiak zipriztinduta

Argi dago pandemiak eragin zuzena izan duela bai bertso plazan, baita txapelketetan ere.

Hurrengo orrian jarraitzen du »»»



**IRATI ALCANTARILLA
URDANPILLETA**
Makea 2021-IX-18
XILABAKo kanporaketa

Doinua: Izarren hautsa egun batean

Berriro ere oholta gainean gure gorputz, gure ahots basoa euskaraz aldarrikatzen segi beharko oraingoz hiltoki bihurtu da Bidasoa eta luzatu arren besoa ez gara aldatzen bandoz gure herriko makroturismo honekin ez gaude ados orain gazteok bizi behar dugu gurasoen dirura joz EHZN zenbat arazo egon baitziren zenbait eraso sufrimendu adina poz dena esatera gatoz.



Makeako Herriko Gelan izan zen larunbatean XILABAKo lehenengo kanporaketa. //XDZ



Nafarroako Bertsolari Txapelketako parte-hartzaileak, aurkezpen egunean. //XDZ

Antolakuntzatik indarrean dauden neurriak errespetatu eta elkar zaintzea eskatzen zaizue bertsozaleei, denontzako seguruak diren espazioak eta txapelketak sortzeko.

Azkenik, sarrerak aurretiaz hartu eta saioetara garaiz joateko gomendioa ere luzatu nahi dugu. Leku batzuetan toki murrizketak egon daitezke eta, neurriak medio, sartu irtenak ohi baino motelago joan daitezke.

Lantalde handiak

Txapelketak fokopetik kanporako lan handia eskatzen du eta lagun askoren ahaleginaren fruitu izaten dira. Bertsolaritzaren ekosistema osoa jartzen

da martxan, eta horrela da Bizkaiko Txapelketan, Nafarroako Txapelketan eta XILABAN ere. Antolatzaile talde, gaitzaile, epaile eta boluntario sare handia osatzen da eta horrela egin ahal izaten dira saioak. Bizkaiko, Nafarroako eta Bertsularien Lagunak elkarteko kideek egindako ahalegina eskertu nahi diete parte-hartzaile guztiei. Eskerrik asko!

Bestalde, bertso plaza eragiten jarraituko du Bertsozale Elkartek.

Xenpelar Dokumentazioa Zentroak bildutako datuei erreparatuz gero, iazko urtearekin alderatuta, urte hasieratik goranzko joera izan du bertso plazak. Pandemiaren krisitik ateratzen goazen moduan ari gara saioak erreparatzen.

Saio motei erreparatzen badiegu, jaialdiak izan dira gehien egin diren saio motak, osasun neurriak segurtasunez betetzeko berme gehien eskaintzen duen saio motak dira eta. Saio bereziek ezaugarri antzekoak dituzte, eta nabarmen egin dute gora pandemia hasi zenetik.

Lagunartekoek eta libreko saioek jasan dituzte ondorio larrienak, antolatzen zailenak direlako eta ezin eginda geratu direlako.

Datozen hilabeteetako erronka lagunarteko eta saio libreen aktibazioa izango da. Hala aurreikusten dugu azken hilabeteetako plazaren irakurketa aintzat (irakurketari buruz, [hemen](#)).



Bilbon aurkeztu dugu Bizkaiko Bertsolari Txapelketa. //XDZ



Txapelketei jarraipena egiteko
www.bertsozale.eus eta www.bertsoa.eus

Hitzetik Hartzera: **berriro ere, bertsoa etxeraino**

Asteburuo atal bat eskainiko dugu ETB1en: larunbatetan 21:00etan eta igandeetan 15:00etan. Programa edonoiz ikusteko aukera egongo da EITB Nahieran atarian.



Eider Perez izango da aurten ere Hitzetik Hartzera saioko gidaria.
//XDZ

Ikasturte berriarekin batera itzuli da **Hitzetik Hartzera** gure etxeko pantailetara. Aurten ere, bertsoaren hainbat alderdi erakutsiko dizkigute astero-astero, Eider Perezen gidaritzapean. Guztira, 26 atal izango ditu ikasturte honetako denboraldiak eta, nola ez, jokatzeko ari diren Txapelketei ere jarraipena egingo zaie: Bizkaikoari, Nafarroakoari eta XILABAkoari. Horrez gain, hiru finalak zuzenean eskainiko dira ETB4n eta ETB1en.

Bertso Udalekuak gertutik ezagutzeko aukera izan genuen denboraldiko lehenengo atalean, baita, udan egindako hainbat saiotako bertsoaldiez gozatzeko ere. Pasa den asteburuan izan zen bigarren atala eta Señora sariketari buruzko xehetasunak entzuteko parada izan genuen. Lehen saioak larunbatean eskaintzen ari dira soilik, ETB1eko programazioan izan diren zenbait aldaketa tarteko.

Iazko denboraldian bezala, oraingoan ere bertsozaleen bertsoaldi kuttunak ezagutzeko aukera izango dugu, atalez atal.

Hurrengo atala, asteburuan

San Telmo museoa egindako *Azken bidai*a emanaldiari buruzkoa izango da hurrengo Hitzetik Hartzera. Heriotzari buruz kantatu zuten bertsoarietako saio horretan eta hango xehetasunak eskainiko dizkigu asteburu atalak, Eider Perezen eskutik. Ez galdu: larunbatean 21:00ak jota, Zinemaldiko itxiera ekitaldiaren ostean, ETB1en.

Mintzola Fundazioaren ibilbidea amaitutzat eman da

Bertsozale Elkarteak bertsoaritzaren ikerketarako eta dokumentaziorako baliabideak zuzenean kudeatuko ditu aurrerantzean eta ahozkotasanaren inguruan ardatzuko den proiektua, berriz, Euskaltzaindiak kudeatuko du.

Aho batez hartu dute erabakia patronatuko kideek: Mintzola Fundazioaren ibilbidea eten egin da. Datorren urtetik aurrera, bereiztu egingo dira bertsoaritzaren ikertergia eta ahozkotasanaren lanketa.

Azken urtebete honetan gogoeta burutu du Mintzola Fundazioak. Gogoeta horren ondorioz, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak, Gipuzkoako Foru Aldundia, Villabonako Udala, UPV/EHU eta Kutxa Fundazioa patronatuko kideek Mintzola ibilbidea amaitu eta ahozkotasanari buruzko ikerkuntza eta hedatze lanaren lekukoa Euskaltzaindiak

har dezan proposatu dute. Bertsoaritzaren harago, ahozko gainerako diziplinetan gehiago sakondu eta eragiteko beharrak bultzatuta hartu da erabakia.

Bertsozale Elkartearen koordinatzaileek adierazi dutenez, "aurrerantzean Bertsozale Elkarteak bertsoaritzaren ikerketarako eta Xepelar Dokumentazio Zentroaren baliabide eta beharrak zuzenean kudeatuko ditu, eta ahozkotasanaren inguruan ardatzuko den proiektu berria Euskaltzaindian kokatuko da", azaldu dute. "Edonola ere, datozen hilabeteetan ekingo diogu egitasmo berria zehazteko lanei".

Aurrerantzean ere, Villabonako Subijana Etxeak Xepelar Dokumentazio Zentroaren eta Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen egoitza izaten jarraituko du.



Koplak

Bertso-eskola feministetan izena emateko epea, zabalik

Irailaren 26ra arte egongo da Ahalduntze Bertso Eskolan eta Gizonentzako Bertso Eskola feministako izen ematea zabalik. Interesa duzuenok, www.bertsozalea.eus atariaren bidez eman dezakezue izena, bertan dagoen formularioa betez. Zazpigarren ikasturtea izango du aurtengoa Ahalduntze Bertso Eskolak; hirugarrena, aldiz, Gizonentzako Bertso Eskola Feministak. Lanketa feminista dute helburu biek: Ahalduntze Bertso Eskolaren bidez, plazako bat-bateko jardunari begira trebatu nahi dira emakume bertsolariak; Gizonentzako Bertso Eskola Feministan, generoaren gaiak duen eraginaz eta norbere kokapenez hausnartzea da asmoa.

Poto-Finixa



Urriaren 20ra arte dago Ikerketa proiektu eta GRAL sarira aurkezteko aukera

UPV/EHUko Mikel Laboa Katedrarekin elkarlanean, 2.000 euroko proiektu sari bat eta 500 euroko GRAL sari bat eskuratzeko aukera eskaintzen dugu. Lehenengoa, oraindik egin gabe dauden ikerlanak garatzeko saria da eta master amaierako lanen proiektuak lehenetsiko badira ere, beste ikerketa lan monografiko batzuen proiektuak ere onartuko dira. Bigarrena, amaituak dauden Gradu Amaierako Lanentzako saria izango da. Urriaren 20ra arte aurkeztu ahal izango dira proiektu zein lanak. Bestalde, Kilometroak Kultur Elkartarekin batera elkarlanean dugun Goierriko ahozko ondarearen bilketa eta hari buruzko ikerketa saria ezagutzeko parada izango dugu urriaren 1ean Ordizian. Kultur ekitaldia ere izango da ondoren; tartean, bertso saioa.



PUBLIZITATEA